

## BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

### 4313

*AGINDUA, 2015eko irailaren 28koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskadiko Eskola Kontseiluko kideak kargutik kendu eta, ondorioz, beste batzuk izendatzen dituena.*

Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legearen 10. eta 12. artikuluetan, lege hori garatuz Euskadiko Eskola Kontseilua arautzen duen martxoaren 7ko 55/1989 Dekretuaren 4., 5., 7. eta 8. artikuluetan, eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren Funtzionamenduaren Arautegia onartzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 1990eko apirilaren 4ko Aginduaren 5. eta 15. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta LAB Irakaskuntza sindikatuaren eta Confebask-en proposamenez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– LAB Irakaskuntzak proposatuta, orain arte Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren ordezkaria izan den Jon Urrusolo Santos jauna Euskadiko Eskola Kontseiluko kide kargutik kentzea.

Bigarrena.– LAB Irakaskuntzak proposatuta, Nerea Undabarrena de la Coteria andrea Euskadiko Eskola Kontseiluko kide izendatzea, Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren ordezkari gisa, Jon Urrusolo Santos jaunari bere agintaldia amaitzeko falta zaion eperako.

Hirugarrena.– Confebask-ek proposatuta, Mikel Sarriegi Etxeberria jauna, Euskadiko Eskola Kontseiluan, Erakunde Patronalen ordezkari den Yoanna Arambalza Zalbidea andrearen ordezkari izendatzea.

Laugarrena.– Confebask-ek proposatuta, Ainhoa Rotaetxe Etxebarria andrea, Euskadiko Eskola Kontseiluan, Erakunde Patronalen ordezkari den Asier Aloria Sánchez jaunaren ordezkari izendatzea.

Bostgarrena.– Confebask-ek proposatuta, Carlos Pereda Martínez de Musitu jauna, Euskadiko Eskola Kontseiluan, Erakunde Patronalen ordezkari den Néstor Eriz Laskurain jaunaren ordezkari izendatzea.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu honek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 28a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.